

# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

147. zenbakia

Data 2000-08-04

12623 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

ZUMAIAKO UDALA

Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioko udal ordenantza

## ZUMAIAKO UDALA

### *Iragarkia*

2000.01.20ko datako Udal Batza Osoko Bilkuran, Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulaziorako Udal Ordenantza onartu zen haserako izaeraz eta 30 eguneko jendaurreko agerraldi epean egon da, 20.03.07ko datatik aurrera, denboraldi horretan ez delarik inongo erreklamazio edo murtzilorik aurkeztu, orainarte behin behingo izaera zuen akordioak behin betiko izaera jasotzen duelarik.

(Apirilak 2leko 11/99 Legeko, 1go art. 14. azpiatala).

Beraz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Ordenantzaren testu osoa argitaratzen da, 7/1985eko apirilak 2ko legeko 70, 2 art.aren arabera.

Zumaia, 2000ko ekainaren 2a.—Rikardo Peña Kintela, Alkatea.

(1133) (8280)

## OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIORAKO UDAL ORDENANTZA

### 1. TITULUA

#### EZARPEN EREMUA

#### *1. artikulua:*

Ordenantza hau, Zumaiako herri barruko bide guztietan ezarriko da, Zirkulazio Kodea onartzen duen 1934ko irailaren 25eko Dekretuan, Trafiko eta Bide-segurtasunari buruzko Oinarrien uztailaren 25eko 18/1989 Legean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu artikulatua onartzen duen 339/1990 Errege Dekretu Legegilean eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra eta gainerako xedapen baterakorrak onartzen dituen 13/92 Errege Dekretuan ezarritakoaren kalterik gabe.

### II. TITULUA

#### SEINALIZAZIOA

#### *2. artikulua:*

1.Udal Administrazioak bere eskumenen bideak egoki seinalatuko ditu, semaforoak, zirkulazioko seinale bertikalak, bide-marrak eta aldi-baterako seinaleak jarritz bide erabiltzaileentzat eta hauen eginkizuna izango da, bidearen edo zirkulazioaren zenbait egoeraz ohartarazi eta informatzea edo beharrezko aurrerapenarekin, erabiltzaileen portaera bideratu edo arautzea.

2.Herriaren sarreretan jarritako aginduzko seinaleak udalerrri guztian egongo dira indarrean, kale bateko zati baterako berariazko seinalizazioan izan ezik.

3.Oinezkoen irletako sarreretan edo mugatutako zirkulazio guneetan dauden seinaleak, orokorrean, beren perimetro guztietan egongo dira indarrean.

4.Udaltzaingoko udaltzainen seinaleak, beste edozein seinaleren gainetik egongo dira.

### *3. artikulua:*

1.Aldez aurreko udal baimenik gabe, ezin izango da seinalerik jarri, kendu, lekualdatu, ezkutatu edo aldatu.

2.Udal agintaritzaren iritziz, benetan herritarren interesekoak diren informazio-seinaleak jartzeko bakarrik, eman daiteke baimena.

3.Ez da onartuko publizitatea jartzea seinaleetan edo hauen ondoan.

4.Debekatu egiten da toldoak, kartelak, iragarkiak eta instalazio oro jartzea, semaforo eta seinaleen ikuspen normala itsutu, galerazi edo mugatzen badiete erabiltzaileei edo hauen arreta galtzea eragiten badute.

### *4. artikulua:*

Udalak berehala kendu egingo ditu, erantzulearen kargura, behar bezala baimenduta ez dauden seinaleak edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituztenak. Eta hau, arauzko ez diren seinaleei dagokienez edo seinale edo kartelaren forma, jartzeko modua edo diseinuari dagokionez.

## III. TITULUA

### UDALTZAINGOAREN JARDUERA BEREZIAK

#### *5. artikulua:*

Ordena publikoa edo Segurtasun arrazoiengatik edo zirkulazioaren arintasuna bermatzeko, Udaltzaingoak behin-behinekotasunez trafiko antolamendua alda dezake, pertsona edo ibilgailu asko elkartu diren lekuetan eta baita, larrialdietan ere. Horretarako, behin-behingo beharrezko seinaleak jarri edo kendu ditzake eta bidezko neurri prebentiboak hartu.

## IV. TITULUA

### BIDE PUBLIKOAZ

## I. KAPITULUA.OZTOPOAK BIDE PUBLIKOAN

### 1. atala. Arau Orokorrak

#### *6. artikulua:*

Debekatu egiten da, oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatu edo hauek aparkatzea galerazten duen edozein traba edo gauza jartzea bide publikoan. Debeku honetan ez dira sartzen Udalak, berariaz, baimendutako bide publikoaren okupazioak, hala badagokio, ezarritako baldintzen arabera.

#### *7. artikulua:*

Oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazio librea galerazten duen edozein oztopo, behar bezala babestuta, seinaleztatuta eta, gauez, argiztatuta egon beharko du, erabiltzaileen segurtasuna bermatu ahal izateko.

#### *8. artikulua:*

Udal Agintaritzak oztopoak ken ditzake, erantzulearen kargura, ondorengo kasuetan:

- 1.Beharrezko baimenik ez dutenean.
- 2.Oztopo edo gauza hori jartzea eragin zuen egoera desagertu denean.
- 3.Baimen horretan eman zen denbora gainditu denean edo bertan finkatutako baldintzak betetzen ez direnean.

### 2. atala. Edukiontzia

#### *9. artikulua:*

1.Altzariak eta gauzak, obretako hondakinak, etxeetako zaborrak eta beste zenbaiten bilketarako edukiontzia, udal organo eskudunak erabakitako lekuetan jarriko dira, bide publikoan trafikoari ahalik eta kalte gutxiena eraginez.

2.Lekualdatzeko gurgilak jarrita dauzkaten edukiontziek, eusteko mekanismoak eduki beharko dituzte, ustekabeen mugitu ez daitezzen.

3.Bideen egoera dela eta, behin-behingo, beharrezkoa denean, edukiontzia zirkulaziorako erreietan jartzea, modu egokian seinaleztatu beharko dira, gauez nahiz egunez, gutxienez 50 metroko distantziaz ikus daitezzen.

4.Udaltzaingoak ken ditzake, udal baimenik gabe jarritako edukiontzia, baimendutako lekuetatik kanpo daudenak edo behar bezala seinaleztatu gabe egon eta zirkulaziorako arrisku larria sortzen dutenak.

Neurri honen ondorioz sortutako gastuak, eragin dituen pertsonaren kargura joango dira.

## II. KAPITULUA.BIDE PUBLIKOETAN DEBEKATUTAKO ERABILERAK

*10. artikulua:*

1.Oinezkoentzat erreserbatutako guneetan eta galtzadetan ez dira onartuko oinezkoentzat edo horretan ari direnentzat arriskutsuak izan daitezkeen joko edo dibertsioak.

2.Umeen patinak, gurpil-oholak, patineteak, bizikletak eta triziklo motordunak edo motor gabeak, espaloi, nasa eta ibiltokietan ibil daitezke, beren abiadura oinezko baten abiadura normalera egokituz eta Ordenantza honetan hauentzat ezarritako arauak bete beharko dituzte.

## V. TITULUA

### OINEZKOAK

*11. artikulua:*

1.Oinezkoak espaloietatik ibiliko dira.

2.Galtzadak, seinaleztatutako pasaguneetatik zeharkatuko dituzte eta, ez badaude, etxadien erpinetatik, galtzadaren perpendikularrean, beharrezko ardura hartuz.

3.Araututako pasaguneetan, horietarako emandako aginduak zorrotz bete beharko dira.

## VI. TITULUA

### GELDIALDIAK, APARKALDIAK ETA LEHENTASUNEZKO BIDEAK

#### 1. KAPITULUA.GELDIALDIAK

1. atala. Arau Orokorrak

*12. artikulua:*

Geldialdi guztiek ondorengo arauak bete beharko dituzte:

1.Arau orokor modura, edozein eratako ibilgailuren geraldia, gelditzea eragindako xedea betetzeko behar beharrezko denbora bakarrik iraungo du, bi minututik pasa gabe, eta gidaria ez da ibilgailutik aterako; eta salbuespen gisa, gidaria ibilgailutik aterako balitz, eskatzen zaionean edo egoerak eskatzen duen une berean erretiratzeko bezain hurbil eduki beharko du ibilgailua.

2.Edozein modutara, geldialdia ibilgailua eskubiko espaloian utziz egin beharko da, martxaren norantzaren arabera, baina norantza bakarreko bideetan ezkerrean ere utz daiteke. Bidaiariak espaloia aldetik jaitsi beharko dute. Gidariak, jaitsi behar izanez gero, beste aldetik jaitsiko beharko du, alde zurretik, inolako arriskurik gabe egin dezakeela ziurtatu eta gero.

3.Gune eta bide publiko guztietan, zirkulazioari oztopo gutxien egiten zaion puntuetan egingo da geldialdia. Salbuetsiak gelditzen dira bidaiariak gaixo edo elbarrituak dauden

kasuak edo urgentziatzko zerbitzu publikoak direnean edo garbitasun edo zabor bilketa zerbitzuko kamioiak.

2. atala. Debekuak

*13. artikulua:*

Erabat debekatuta dago gelditzea, kasu hauetan:

1. Ikuspen gutxiko bihurtze eta malda-gainaldeetan, hauen inguruetan eta tuneletan.
2. Trenbide pasaguneetan, txirrindularientzako pasaguneetan eta oinezkoen pasaguneetan.
3. Erabiltzaile jakin batzuen zirkulazio edo zerbitzurako soil-soilik gordetako erreietan edo bide-zatietan eta ondorioz, oinezkoen guneetan, autobus, autobus-taxi edo taxi erreietan eta jardueraren baterako gordetako garraio publikorako geralekuetan. Salbuespen gisa, garraio publikorako geralekuetan izaera honetako ibilgailuak gera daitezke eta erreserbak, baimendutako ibilgailuek erabil ditzakete.
4. Elkarguneetan eta elkargune inguruetan.
5. Erabiltzaileengan eragina duten bide-seinaleak ikusteko eragozpenak sortzeko moduko lekuetan edo maniobra egitera behartzen duten lekuetan.
6. Lehentasunezko zirkulaziorako izendatutako bideetan.
7. Bigarren ilaran, zirkulazioko norantza bakarreko kaleetan, oraindik errei bat libre gelditzen bada eta bi errei, bi zirkulazio norantzako kaleetan gelditzen badira izan ezik, beti ere, trafikoa oso handia ez bada eta 100 metroko distantzian leku librerik ez badago. Edozein kasutan, bete egin beharko da kapitulu honetako 1. atalaren 12. artikuluan jasotako geldialdietarako arau orokorrak.
8. Nasa, babesgune, erdiko edo alboetako ibiltokietan eta zoladuran marra bidez seinalatutako guneetan, nahiz eta okupazioa osoa edo zati batekoa izan.
9. Ezindu fisikoen pasaguneetarako egokitutako espaloietan.
10. Dagozkion seinaleak debekatzeko duten lekuetan.
11. Zamaketa eta hustuketa lanetarako seinalatutako guneetan, horretarako seinaleztatutako denboraren barruan, bidaiariak eta/edo salgaiak hartu/uzteko beharrezko denboran izan ezik.
12. Eta zirkulazioari eragozpena sortzen zaion beste lekuetan, baita aurreko kasuetan ere, nahiz eta denbora gutxirako izan.

## II. KAPITULUA. APARKALDIAK

1. atala. Arau Orokorrak

#### *14. artikulua:*

Oro har, ibilgailuen aparkaldia ondorenean aipatzen diren arauen arabera zuzenduko da:

1. Ibilgailuak ilaran aparka daitezke, hau da, espaloia-aren paraleloan; zeharka, harkiko elkarzutasunean eta erdizeharka, zeharkari.
2. Lau gurbileko ibilgailuentzako arau orokorra da, aparkaldia ilaran egingo dela eta bi gurbilekoentzat zeharka. Arau honen salbuespena espreski seinalatu beharko da.
3. Zoladuran seinalatutako aparkalekuetan, markatutako perimetroaren barruan utziko dira ibilgailuak.
4. Edozein kasutan, gidariak beren ibilgailua aparkatuta utzi beharko dute, berez ez mugitzeko moduan edo beste pertsona batzuk ez mugitzeko moduan. Horretarako beharrezko neurriak hartu beharko dituzte. Aipaturiko gorabeheraren bat dela eta, ibilgailuaren egoera aldaketaren ondorioz gerta litezkeen arau-hausteen erantzule izango dira gidariak, ez bada behintzat agerian geratzen beste pertsona batek ibilgailua indarkeriaz lekualdatu duela.
5. Bide publikoan ezingo dira aparkatu motordun ibilgailuetatik bereizitako atoiak eta hauek, 3. mailako ibilgailuentzat Udalak egokitutako aparkalekuan utzi beharko dira.

#### 2. atala. Debekuak

#### *15. artikulua:*

Erabat debekatuta gelditzen da aparkatzea, ondorengo kasu hauetan:

1. Gelditzeko debekua dagoen tokian.
2. Dagozkien seinaleek debekutzen duten lekuetan.
3. Ibilgailuaren eta galtzadaren beste aldeko ertzaren arteko tartea edo galtzada zeharkatzea debekutzen duen luzetarako marraren arteko tartea hiru metro baino txikiagoa denean edo, hala badagokio, beste ibilgailu batzuk pasatzea uzten ez duenean edo maniobra arriskutsuak egitera behartzen duenean.
4. Bigarren ilaran, bai lehenengo ilaran dagoena ibilgailua bada eta baita, edukiontzia edo babes-osagaia bada ere.
5. Galtzadaren erdian. Espaloia-aren ondoan ez dagoen guztietan, ibilgailu bat galtzadaren erdian dagoela ulertuko da, Ordenantza honen 14.4 artikulua arabera.
6. Ibilgailuen zutabe bakarri pasatzen uzten duen galtzada dagoen kaleetan.
7. Zirkulazioko bi norantza dituzten kaleetan, galtzadaren zabalera bi ibilgailu zutabe bakarrik pasatzen uzten duenean.

8.Kale ertzetik bost metro baino gutxiagoko distantzian, bi errei baino gutxiagoko kaleetan edo edozein eratako ibilgailuei bira egiteko zailtasunak sortzen zaizkienean.

9.Arauz aparkatutako beste ibilgailu batzuen irteera oztopatzen denean.

10.Espaloietan, oinezkoen guneetan beren ordutegiaren barruan, nasa, babesgune, erdiko eta alboetako ibiltokietan eta zoladuran marraz seinalatutako guneetan, nahiz okupazioa osoa izan edo zati batekoa.

11.Nasa, babesgune, erdiko eta alboetako ibiltokietan eta zoladuran marraz seinalatutako guneen ondoan.

12.Salgaien zamaketa eta hustuketa lanetarako gordetako guneetan.

13.Pasabideetan, osoan edo zati batean.

14.Leku batean hilabete segidan baino gehiago edo denbora mugagabeen, utzita dagoela pentsarazteko moduan.

15.Aparkatzeko seinalatutako lekuaren mugetatik kanpora.

16.Ekitaldi publiko eta ikuskizunetarako diren lokaletan edo jendetza biltzen den orduetan edo ospakizun orduetan lokalen irteeraren aurrean. Lokal hauen jebeek, ohiko sarrera eta irteeretan eta larrialdietarako irteeretan seinaleak jarriko dituzte.

17.Behin-behingo, baimendutako jardueretarako erabiliko diren guneetan edo garbitu, seinalezatu edo konpondu behar direnetan. Kasu hauetan, bidezko hedabideetan eta abisuak jarriz, debekua jakitera emango da. Debekuaren alde aurreko jakinarazte hau, beharrezko aurrerapenez egingo da, justifikatutako urgentziazko kasuetan izan ezik.

18.Garbitasun zerbitzuak edo beste bilketa zerbitzu batzuk edukiontzia edo beste edukigailu batzuk biltzea galerazten duen lekuetan.

19.Zirkulazioa oztopatzen den lekuetan, ikuspen gutxikoetan, beste ibilgailu batzuk ikusteko ahalbidea modu arriskutsuan gutxitzen den lekuetan edo argi eta garbi arriskua dakarten araukontrako maniobrak egitera behartzen denean.

#### *16. artikulua:*

Ordenantza honen 15.artikuluaren 14.atalak diona ez betetzeagatik (utzitako ibilgailuak) ibilgailu batek eragina izaten badu aurkitzen den lekuaren antolamendu aldaketagatik, norantza edo seinaleztapen aldaketagatik, obrak egiteagatik edo ibilgailua udal gordetegira eramatea ere ekar liteken beste edozein aldaketagatik, gidaria izango da egindako arau-hauste berriaren erantzule.

#### *17. artikulua:*

Araututako eta ordutegi mugatuko aparkaldiek, beti ere, erabilera librekoekin batera egongo direnak, beren ordenantza arautzaileak eta xedapen osagarriak bete beharko dituzte.

*18. artikulua:*

Gidariaren helmuga lekutik hurbil ez baldin balego ezindu fisikoek erabiltzeko inolako gunerik, Udaltzaingoak, Ezindu Fisikoen Txartela dutenei, trafikoari kalte gutxiena egiten zaion lekuetan aparkatzen utziko die, baina inoiz ez, Ordenantza honek ibilgailua kentzeko aurreikusitako aparkalekuetan.

### III. KAPITULUA. MOTORRAK, MOTOR-BIZIKLETAK ETA BIZIKLETEN APARKALDIAK

*19. artikulua:*

1. Udalak bide publikoan seinaleztatuko ditu, motorrak, motor-bizikletak eta bizikletak aparkatzeko leku edo guneak.

2. Debekatuta egongo da bi gurpileko ibilgailuak espaloi gainetan aparkatzea.

3. Galtzadako aparkaldiak zeharka edo erdizeharka egingo dira, gehienez ere, metro eta erdiko zabalera hartuz.

4. Motorra, ziklo-motorra edo bizikleta bat beste ibilgailu batzuren artean aparkatzen denean, haietara sartzea ez galerazteko moduan egingo da.

### IV. KAPITULUA. LEHENTASUNEZKO BIDEAK

*20. artikulua:*

1. Trafikoari dagokionez, lehentasuneko bidetzat hartuko dira, ibilgailuen ugaritasunagatik, ibilbideagatik, egoeragatik eta beste bideekin komunikatzeko, herri barruan trafikoa banatzeko ezinbestekoak gertatzen direnak.

2. Bide hauek herri barruko zirkulazio gehiena jasan behar dutenez eta kale hauetako arau-hausteak gainerako erabiltzaileen aurka arrisku eta kalte gehiagoren eragina izango dutenez, Udaltzaingoak kale hauetan bere zaintza areagotu egingo du eta ardura haundiagoz arituko da.

3. Bide hauek, kirol eta kultur ekintzetan edo beste zenbait ekintzetan erabiltzeagatik, trafikoan eragin daitezkeen ondorio larriak direla eta, ekintza hauek ospatu baino hilabete lehenago erakunde antolatzaileak bide horiek erabiltzeko baimena eskatu beharko du, bere berezko arauen bidez zuzenduko den agertzeko eta biltzeko eskubide konstituzionala erabiltzeko kalterik gabe. Bide hauetatik ibilgailu bereziak ibili behar duten kasuetan, Ordenantza honen XII. Tituluan ezarritakoaz zuzenduko da.

4. Aurreko atalean aipatutako baimenek, eskatutakoarekiko ibilbide alternatiboa barnera dezakete, proposatutako ibilbidea aholkatzen ez duten gorabeherak ematen direnean. Edozein kasutan, Udaltzaingoak dagozkion trafikorako planak egingo ditu, zirkulazio mozketara edo desbideraketa gertatzen denean, hala badagokio, erabiltzaileentzat kalterik gutxiena sortuko dituen bideak seinalatuz.



5. Lehentasunezko bideak izango dira:

—Txomin Agirre kaia.

—Inazio Zuloaga plaza.

—Erribera kalea.

—Amaia plaza.

—Udaletxe ondoko kaleak.

—Itzurun hondartza ondoko kaleak, udaldian.

Udalak, alkatetzako bandoaren bidez, Ordenantza honetan lehentasunezko bidetzat hartutako bideak aldatu edo gehitu ditzake.

## VII. TITULUA

### BIDE PUBLIKOTIK IBILGAILUAK KENTZEA ETA HAUEN ZAINTZA

#### 1. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

##### *21. artikulua:*

Udaltzaingoak bidetik ibilgailua kendu eta ibilgailuen udal gordetegian gorde dezake, horretarako behartuta dagoenak jasotzen ez badu, ondorengo kasu hauetan:

1. Zirkulazioari arriskua sortzen dionean edo ibilgailuen zirkulazioari, bide publikoen beste erabiltzaile batzuri edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari arazo larria sortzen dionean eta baita, bide publikoan utzita dagoela pentsatzeko arrazoiak daudenean ere.

2. Bere martxa jarraitzea galerazten dion istripu kasuetan eta horren gorabeherak direla eta, horretarako behartuta dagoenak ezin duenean.

3. Ibilgailu beraren hutsuneak direla eta, geldituta dagoenetik 48 ordu igaro direnean eta ibilgailuaren gidari edo jabeak konpondu ez dituztenean.

4. Ibilgailua ibilgetua egonda, martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretu Legegilearen 67.1 artikulua 3. esaldian agindutakoaren arabera, arau-hausleak isunaren balioa jarri edo bermatu nahi ezean jarraitzen duenean.

5. Alkoholemia frogak egin eta emaitzak positiboak direnean, ibilgailuak gidatzeaz behar bezala gaitutako beste pertsona bat ez bada arduratzen behintzat.

##### *22. artikulua:*

Esate baterako, ibilgailu bat Ordenantza honetako 21. artikulua 1. atalean jasotako egoeretan dagoela, ulertuko da eta ondorioz, ibilgailua kentzea justifikatua dagoela ondorengo kasuetan:

1. Gelditzea debekatuta dagoen puntu batean aparkatuta dagoenean.
2. Gidaririk gabe, bigarren ilaran aparkatuta dagoenean, Ordenantza honen 15. artikulua 4. atalean zehaztutakoa hautsiz.
3. Txaflan baten erpinetik edo ertz baten angeluaren muturretik nabarmentzen denean eta beste gidariak maniobra arriskutsuak egitera behartzen dituztenean.
4. Seinaleztatutako oinezkoen pasagune batean aparkatuta dagoenean, oinezkoen pasagunerako diren etxadien muturrean edo ezindu fisikoentzat egokitutako espaloi batean.
5. Pasabide osoa edo zati bat okupatzen duenean, erabiltzeko baimendutako ordutegiaren barnean.
6. Zamaketa eta hustuketa lanetarako gune batean geldituta eta/edo aparkatuta dagoenean, horretarako erabiltzeko orduetan, bidaiariak/salgaiak hartzen/uzten ari ez denean.
7. Seinaleztatuta eta mugatuta dagoen garraio publikorako geraleku batean aparkatuta dagoenean.
8. Larrialdi edo segurtasun zerbitzuetarako espreski gordetako lekuetan aparkatuta dagoenean.
9. Ikuskizun publikoetarako diren lokaletako larrialdi irteeren aurrean aparkatuta daudenean, ikuskizunak burutzen ari diren orduetan.
10. Ezindu fisikoentzako gune batean aparkatuta dagoenean.
11. Espaloi, nasa, babesgune, ibiltoki, arreta-gune edo zoladuran marraz seinalatutako gunean aparkatuta dagoenean, nahiz eta okupazioa osoa edo zati batekoa izan, horretarako baimena ez badu behintzat.
12. Bide publikoaren gainerako erabiltzaileei bide seinaletan ikustea galerazten dienean.
13. Jiratzea galerazten duenean edo jiratzeko maniobra arriskutsuak egitera behartzen duenean.
14. Beste bide batetik datozen gidariei, bide publiko baten trafikoa ikusten uzten ez dienean.
15. Eraikin batera sartzea erabat edo zati batean galerazten duenean.
16. Alkatetzako bandoaren bidez «lehentasuna» duen bide batean, debekatutako lekuan aparkatuta dagoenean.

17.Galtzada erdian aparkatuta dagoenean.

18.Oinezkoen gune batean aparkatuta dagoenean, horrentzat seinalatutako baldintzetatik kanpo, espreski horretarako baimena ez badu behintzat.

19.Aurreko kasu guztietan bezala, zirkulazioari edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari eragozpen larria edo arriskua sortzen dionean.

### *23. artikulua:*

Udaltzaingoak jaso ditzake ibilgailuak bide publikotik arau-hausterik egiten ari ez badira ere, ondorengo kasu hauetan:

1.Behar bezala baimendutako ekitaldi publikorako erabili behar den leku batean aparkatuta daudenean.

2.Bide publikoa garbitu, konpondu edo seinaleztatzeko beharrezkoa denean.

3.Larrialdietan.

Artikulu honetako 1 eta 2.ataletan zehaztutako gorabeherak ahal den azkarrena adieraziko dira eta ibilgailuak baimendutako leku hurbilenera eramango dira, beren gidariei nora eraman diren jakinaraziz. Aipaturiko lekualdaketek ez die gasturik eragingo ibilgailuen titularrei, eramandako lekua edozein izanik ere.

Finkoak ez diren adierazleak edo seinaleak jarri eta gero aparkatuak izan diren ibilgailuak kendu egingo dira eta kendu eta ibilgetzeagatik sortutako gastuak ordaindu egin beharko dira.

## II. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA

### *24. artikulua:*

Udaltzaingoak ibilgailua ibilgetu dezake, hori erabiltzeagatik zirkulazioarentzat, pertsonentzat edo ondasunentzat arrisku larria erator daitekenean.

Neurri hau ondoriorik gabe utziko da, hori eragin duten arrazoiak desagertu eta berehala.

Era berean, ibilgailu bat ibilgetu daiteke, ondorengo kasuetan:

1.Gidariak, alkoholemia neurtzeko probak egiteari ezetza ematen dionean.

2.Martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen 67.artikuluaren, hirugarren esaldian agindutakoaren arabera, arau-hausleak horren balioa jarri edo bere ordainketa bermatzeari uko egiten dionean.

## III. KAPITULUA. GASTUEN EGOZKETA

### *25. Artikulua:*

1. Behar bezala justifikatuta titularraren borondatearen kontrako lapurreta edo ibilgailuaren beste erabilera batzuetan izan ezik, Ordenantza honen 21. artikuluan aipatutako ibilgailua kentzearen ondorioz sortutako gastuak, titularraren kontura joango dira eta ibilgailua berari itzuli baino lehen ordaindu egin beharko ditu.

2. Era berean egingo da, alkoholemia neurtzeko probak egiteari ezetza emateagatik ibilgetzen den kasuetan eta indarrean dagoen legeriak horrela zehazten duen kasuetan.

3. Kendutako ibilgailua delituren bat egiteko erabili bada eta hau, Aginte Judizialaren esku jarri baldin bada, gastuen erreklamazioa auzibidez egingo da.

4. Udal gordetegira eramandako ibilgailuak, titularrak bakarrik jaso ditzake edo horretarako behar bezala baimendutako pertsonak.

#### *26. artikulua:*

Ordaindu beharra, bide publikotik ibilgailua kentzeko edo ibilgailua ibilgetzeko lanak hasterakoan sortzen da eta horretarako nahikoa izango da, kendu edo ibilgetu behar den ibilgailuaren ondoan, lan hori egin behar duen garabia edo ibilgailua jartzea, nahiz eta oraindik lanean hasi ez.

### IV. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETU ETA KENTZEKO ZERBITZUAREN TARIFAK

#### *27. artikulua:*

Bide publikotik ibilgailuak kendu eta ibilgetzeko tasak, Zumaiako Udaleko Zerga, Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantza Arauemailean adierazitakoaren arabera sortuko dira.

#### *28. artikulua:*

Bide publikoetatik ibilgailuak kendu direnean titularra horren jakinean dagoela argi egon gabe, kendu denetik 48 ordu iragan eta gero inor ez bada azaldu erreklamatzera, espreski jakinaraziko zaio dagokion erregistroan titular gisa azaltzen denari.

## VIII. TITULUA

### UTZITAKO IBILGAILUAK

#### I. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOETAN

#### *29. artikulua:*

Ibilgailua utzitako egoeran aurkitzen dela kontsidera daiteke, ondorengo egoeraren bat gertatzen denean:

1. Bide publikoan leku berdinean hilabete baino gehiago aparkatuta dagoenean.

2. Kanpoko ezaugarriak utzita dagoela edo bere kabuz mugitzeko gauza ez dela, pentsarazten duenean.

### *30. artikulua:*

Utzitako egoeran dagoen ibilgailuak zirkulazioari edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari eragozpen larriarik sortzen ez dionean, sortuz gero beherala kenduko bailitzateke, ondorengo era honetan jokatu da:

1.Egoera horren berri emango zaio Ibilgailuen Erregistroan titular gisa azaltzen denari edo legez bere jabea denari, hamar eguneko epea emanaz ibilgailuaren kargu egiteko eta utzitako egoera hori aldatzeko.

2.Hamar egunak igaro ondoren ibilgailuak utzita egoten jarraitzen badu, udal gordetegira jasoko da, bidezko zigor-espidenteari hasiera emateko kalterik gabe.

3.Utzitako ibilgailuak kentzeagatik sortutako gastuak, euren titularren kontura izango dira.

## II. KAPITULUA. UDAL GORDETEGIAK

### *31. artikulua:*

Trafikoko arau-hausteak direla medio edo trafikoko istripuak amaitutako prozedura judizialaren menpe dauden egintzengatik edo justifikatutako beste arrazoi batzurengatik udal gordetegira eramanak izan diren ibilgailuak eta han sartu zirenetik edo prozedura amaitu zenetik hilabete iragan baldin bada beren titular edo jabeek handik jaso gabe, utzitako ibilgailutzat hartuko dira eta hurrengo artikuluan aurreikusitakoa egingo da.

## III. KAPITULUA. UTZITAKO IBILGAILUAK SALTZEA

### *32. artikulua:*

1.Udalak enkante publikoaren bidez saldu egingo ditu, horretarako izendatutako leku edo lokaletan gordeta dauzkan ibilgailuak, beren titularrei espreski eta formalki, ibilgailua kendu eta gorde egin dela jakinarazi zitzaionetik, hilabete baino gehiago iragan denean horien kargu egiteko beharrezko neurriak hartu gabe.

2.Gordetako ibilgailuen titularrak ezagutzen ez direnean edo non bizi diren jakiten ez denean, horiek aurkitzeko eginbideak ondoriorik eman gabe, aurreko puntuan aipatutako jakinarazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Ediktuen bidez egingo da titularren kontura, hauek azaldu balira, ibilgailuen ezaugarriak eta erreferentziak ahalik eta zehaztasun gehienarekin emanaz.

3.Utzitako ibilgailuak jendaurreko enkantean saldu baino lehen, Udalak Industria Ordezkaritzarekin eta/edo Trafikoko Buruzagitza Probintzialarekin bideratuko ditu, indarrean dagoen Legerian era honetako ibilgailuak dituzten betebeharrak.

4.Aurreko neurri hauek ez dira aplikatuko, ibilgailuak prozedura judizialaren menpean dauden trafikoko egintzetan sartuta daudenean, horri bideratzen ari den bitartean.

5.Ibilgailuen enkantean saldutakoaren emaitza, lehenengo eta behin, ibilgailua jaso eta zaintzeagatik edo enkanteagatik sortutako gastuak ordaintzeko erabiliko da. Gelditzen

dena, bi urteko epean gorde egingo da ibilgailuen titularrentzat. Epe hori iragan ondoren Udalari adjudikatuko zaio.

*33. artikulua:*

Titularrek, espreski adierazi badute ibilgailua uzteko borondatea, Udalak komenigarriena den moduan erabiliko ditu.

*34. artikulua:*

Utzitako ibilgailuak saltzeko prozedurak ez du aldatuko beren titularren erantzukizuna ibilgailuak uzteagatik edo titularitate horren ondorioz, aurrez hartutako obligazioengatik.

## IX. TITULUA

### ZIRKULAZIO NEURRI BEREZIAK

#### I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

*35. artikulua:*

Egoera bereziek eskatzen dutenean, trafikoa antolatzeko bidezko neurriak har daitezke, ibilgailuen zirkulazioa debekatu edo murriztuz edo herriko gune batzuetarako sarrerak bide jakin batzuetatik bideratuz eta aparkaldiak ere berrantolatuz.

#### II. KAPITULUA. OINEZKOEN GUNEA

*36. artikulua:*

Udal Administrazioak, bere iritziz, herriko gune jakin bateko ezaugarriek justifikatzen dutenean, ibilgailuen zirkulazioa eta aparkaldiak edo bi hauetako bat, osorik edo zati batean debeka ditzake, aipaturiko gunearen barruko bide guztiak edo horietako bide batzuk, oinezkoentzat gordetzeko.

Leku horiei oinezkoen guneak deituko zaie eta bando bidez zehaztuko dira.

*37. artikulua:*

Oinezkoentzako guneek, sarrera eta irteeretan bidezko seinaleak eduki beharko dituzte, eragindako kale edo gune horretan ibilgailuen sarrera eta zirkulazioa galerazten duen beste osagai mugikor batzuek erabiltzeko kalterik gabe.

*38. artikulua:*

Oinezkoen guneetan, ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzeko debekuak ahalmen hauek izango ditu:

1. Bere perimetroaren barruan dauden bide guztiak hartuko ditu edo hauetako batzuek.

2. Aldez aurretik ezarritako ordutegira mugatzea edo ez mugatzea.

3. Eguneroko izaera edukitzea edo egun jakin batzuetarako bakarrik izatea.

*39. artikulua:*

Adierazitako mugen garrantzia edozein izanik ere, ez dute eraginik izango, ondorenean aipatzen diren ibilgailuen zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den zirkulazioan eta aparkaldietan:

1. Suhiltzaile zerbitzukoak, Polizia zerbitzukoak, anbulantziak eta oro har, zerbitzu publikoetarako beharrezkoak diren guztiak.

2. Gune horretan edo gune horretatik kanpora, eraikin batera gaixoak eramaten dituztenak.

3. Gune horretan lekututako eta pasabidea duen baimendutako garaje batetik irteten dutenak edo garajera dihoazenak eta oinezkoen gunearen barruan, baimentutako aparkaleku batetik irteten dutenak.

4. Bizikletak.

### III. KAPITULUA. ALDERANTZIKATUTAKO LEHENTASUN GUNEAK EDO EGOITZA KALEAK

*40. artikulua:*

Bide publikoetan, dagozkion seinaleak jarritz, ibilgailuen zirkulaziorako arau orokorrak murriztuta gelditzen diren guneak ezar daitezke, eta horietan, oinezkoek beren ekintza guztietan lehentasuna izango dute.

Bizikletek ere, gainerako ibilgailuekiko lehentasuna izango dute, baina ez oinezkoekiko.

### IV. KAPITULUA. GARRAIO PUBLIKORAKO GERALEKUAK

*41. artikulua:*

1. Udal Administrazioak erabakiko du non jarriko diren garraio publikorako geralekuak.

2. Geraleku hauetan, bidaiariak hartu eta uzteko beharrezko denbora baino gehiago ezingo da gelditu, linearen hasiera edo amaierako seinaleak ez badaude behintzat.

3. Taxi zerbitzurako diren garraio publikoaren geralekuetan, ibilgailu hauek bidaiarien zain bakarrik egon daitezke.

4. Ibilgailuen kopurua ez da inoiz geralekuaren edukiera baino haundiagoa izango.

### V. KAPITULUA. ZAMALANAK

1. Atala. Arau Orokorrak

*42. artikulua:*

Salgaien zamalanak lokal merkatal eta industrialen barruan egingo dira, baldintza egokiak dituztenean.

*43. artikulua:*

Zamalaneko salgai eta gainerako materialak, ez dira galtzada edo espaloi gainean utziko eta eraikinetatik zuzenean ibilgailura eramango dira edo alderantziz.

*44. artikulua:*

Salgaien zamalanak espaloitik hurbilena dagoen ibilgailuaren aldetik egingo dira, lana arintzeko beharrezko bitartekoak jarritz eta oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzen ahaleginduz.

*45. artikulua:*

Zamalanak herri barruan ezingo dira goizeko 7:00ak baino lehen hasi eta ezta 20:00ak jo eta gero jarraitu ere, 48.artikuluaren agindutakoaren kalterik gabe. Zamalanak bidezko neurriak hartuz egingo dira, beharrezkoak ez diren zaratak ez ateratzeko eta erabilitako lekua garbi uzteko obligazioarekin.

Egoera bezezi bat dela eta, zamalanak ezarritako ordutegitik kanpo egin behar balira, Udaltzaingoaren baimena beharko litzateke.

## 2. Atala.Zamalanetarako gunekak

*46. artikulua:*

Industria edo merkataritzako lokalen egoerak ez badu zamalanak barruan egitea uzten, horretarako izendatutako guneeetan egingo dira.

Gune hauek, garraio txartela duten salgaien banaketarako ibilgailuentzat gordeta egongo dira edo burutzen duten jardueraren adierazleak ibilgailuen kanpoko aldean errotulaturak dauzkaten gremioetako edo baserritarren ibilgailuentzat.

*47. artikulua:*

Udalak, araututako eta ordutegi mugatua duten zamalanetarako gunekak seinaleztatuko ditu. Banaketa hau, merkataritzaren gorabeherak, egoera, erabiltzeko maiztasuna eta trafikoan eta bide publikoen gainerako erabiltzaileengan izango duen ondorioa kontuan hartuz, egingo da.

Zamalanerako gune hauetan, ibilgailuaren zamaketa lanak egiteko beharrezko denbora bakarrik egongo da eta salgaiak lokaletan egokitzeko denbora gehiago gelditu behar izanez gero edo gremiokoen kasuan, eraikinetan lanean arituz gero, ibilgailua kendu egin beharko da eta gune horietatik kanpora aparkatu.

## 3. Atala.Zamalanerako guneeetatik kanpoko zamalanak



*48. artikulua:*

Zamalanetarako erreserbatutako guneetatik kanpora zamalanak egitea, horretarako gunerik ez dagoenean edo gorde behar den lekua arteko distantzia neketsua edo arriskutsua denean bakarrik, onartuko da.

Lan hauek, Ordenantza honetan ezarritako aparkatzeko arauak beteaz egingo dira, eta bide publikoaren gainerako erabiltzaileei kalterik edo arriskurik sortu gabe.

## VI. KAPITULUA. ABIADURA ARRETA ELKARGUNEETAN

*49. artikulua:*

Errei bakarreko zirkulazioa dagoen kaleetan eta oinezko asko ibiltzen den kaleetan, ibilgailuek beren abiadura gutxitu eta beharrezko neurriak hartu beharko dituzte.

Neurri berdinak hartu beharko dira, euria ari duenean, zoladura egoera txarrean dagoenean edo bidea estua denean.

## VII. KAPITULUA. BI GURPILEKO IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA

*50. artikulua:*

1. Bi gurpileko ibilgailuak ezingo dira ibili maila gehiagoko ibilgailuen bi ilara artean edo ilara bat eta espaloia artean eta ezta paraleloan ere.

2. Motorrak eta motor-bizikletak ezin izango dute zaratarik atera ibilgailu egokiak ez edukitzeagatik, bat-bateko azelerazioengatik, hondatutako ke-hodiengatik edo beste egoera anormal batzuegatik.

3. Aurreko atalean aipatutako ibilgailuak ezin izango dira ibili espaloi gainean, nasa eta ibiltokietan.

*51. artikulua:*

1. Pertsona bakarrentzat egindako bizikletetan urte bat eta sei urte arteko adin txikikoak eramatea onartuko da, ondorengo baldintzak betetzen badira:

a) Homologatutako transportinetan egitea.

b) Gidaria adinez nagusia izatea.

2. Motor-bizikletetan, gidariaz gain, gehienez ere beste bidaiari bat eramango da eta ondorengo baldintza hauek bete beharko dira:

2.1. Industria Ordezkaritzak emandako ezaugarrien ziurtagirian horrela adierazita egotea.

2.2. Motor-bizikletako bidaiaria edozein eratako bidetik doanean hankalatraban joatea eta aldamenetako hankalekuetan oinak ipinita.

2.3. Bidaiaria inola ere ezin izango da jarri gidariaren eta motorreko esku-lekuaren artean.

3. Motorrek pertsonak garraiatzeko akoplamendu bat eraman dezakete (sidekarra), beren Zirkulazioko baimenean horrela adierazita baldin badago.

## VIII. KAPITULUA. UMEEN PATINAK, GURPIL-OHOLAK, TRIZIKLOAK EDO ANTZEKO APARAILUEN ERABILERA

### *52. artikulua:*

Patinak, gurpil-oholak edo antzeko aparailuak erabiltzen dituztenak ezin izango dira galtzadan ibili, horretarako izendatutako gunee, bide edo hauen zati batzuetan ez bada.

### *53. artikulua:*

Elbarrien kotxeak horretarako bereziki izendatutako bidetik edo horren zati batetik ibiliko dira. Hori ezean, beren eskubiko bazterbidetik ibiliko dira, zirkulatzeko modukoa eta zirkulatzeko nahikoa balitz, eta ez balitz, galtzadaren behar beharrezko zatia erabiliko dute.

## IX. KAPITULUA. BIZIKLETAK

### *54. artikulua:*

Bizikletak espaloietan eta oinezkoen guneeetan ibil daitezke, beren abiadura oinezko baten abiadurara egokituz.

## X. TITULUA

### ARGIEN ERABILERA

### *55. artikulua:*

Eguzkia sartzen denetik irten arteko orduetan edo tuneletan eta «tunel» seinalea duten bideguneeetan eguneko edozein ordutan zirkulatzeko ari diren ibilgailu guztiek, dagozkien argiak piztuta eraman beharko dituzte.

## XI. TITULUA

### MUGAK ZIRKULAZIOAN

### *56. artikulua:*

Izaera orokorrarekin, debekatu egiten da autobusak eta kamioiak (3.500 kilotik gorako BGP dutenak) herri barruan aparkatzea. Ibilgailu hauek, Udalak horretarako egokitutako lekuan, aparkatu beharko dute.

### *57. artikulua:*

Herriko sarreretan bidezko seinaleak jarriko dira, gidariei neurri mugatzaile hauen berri emateko.

## XII. TITULUA

### ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK, KAUTELAZKO NEURRIAK ETA ERANTZUKIZUNA

#### I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

##### *58. artikulua:*

1. Ordenantza honen aurkako egintzak eta ez-egiteak arau-hauste administratiboen izaera edukiko dute eta zigortu egingo dira, Udalak, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz, erabakiko duen moduan eta neurrian, non eta delituak ez badira edo zigor-legeetan tipifikatutako arau-hausteak. Kasu horretan, Administrazioak erruaren hainbestekoa aginpidedun eskumeneko ordenari pasatuko dio eta zigortzeko prozedurarekin ez du aurrera jarraituko Agintari judizialak epai irmoa eman arte.

Aldi berean zigortuak izango dira, 1934ko irailaren 25eko Dekretuz onartutako Zirkulazioko Kodean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Oinarrien uztailaren 25eko 18/1989 Legean, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilean, urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuz onartutako Zirkulazioari buruzko arautegi Orokorrean eta indarrean dauden trafikoko beste arautegi batzuetan ezarritako herri barruko bideetan egiten diren gainerako arau-hausteak, Legeak zigorra ezartzeko eskumena beste Administrazio bati ematen ez badio, kasu horretan jarduerak eskualdatuko zaizkiolarik.

2. Aurreko puntuetan aipatutako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Arau-hauste arintzat hartuko dira, Ordenantza honetan eta trafikoko gainerako arauetan eta ondorengo zenbakietan barneratutako eta espreski, larritzat edo oso larritzat jotzen ez diren arauen aurka egindakoak.

4. Arau-hauste larritzat joko dira, ondorengo gaiei dagozkien jokabideak:

—Axolagabekeriaz edo ausarkeriaz gidatzea.

—Abiadura mugak.

—Pasatzeko lehentasuna.

—Aginduzkoaren kontrako norantzan zirkulatzea.

—Leku arriskutsuetan edo trafikoa larriki oztopatzen den lekuetan gelditu eta aparkatzea.

—Bide publikoan obrak egin eta seinaleztatzea.

—Aldi baterako seinaleak edo seinale iraunkorrak kendu edo hondatzea.

—Ibilgailuen arteko lehiaketa edo lasterketak.

—Trafikoari buruzko gainerako arauetan larritzat jotakoak.

5. Arau-hauste oso larritzat hartuko dira aurreko zenbakian aipatutakoak, arrisku egoerak gertatzen direnean zirkulazio handia dagoelako, bidearen ezaugarri eta baldintzengatik, eguraldia edo ikuspenagatik, ibilgailuak eta beste erabiltzaile batzuk aldi berean agertzeagatik edo arau-haustea egiterakoan arau-hauste larrirentzat aurreikusitako egoerari, arrisku gehigarria eta zehatza sor diezaiokeen beste gorabehera batengatik.

## II. KAPITULUA. ZIGORRAK

### *59. artikulua:*

1. Arau-hauste arinak 15.000 pta. arteko isunez zigortuko dira; larriak, 50.000 pta. arteko isunez eta oso larriak 100.000 pta. arteko isunez.

Arau-hauste larriak edo oso larriak direnean, Udalak aginpidedun administrazioari proposa diezaioke gidatzeko baimena edo lizentzia indargabetzea.

2. Zigorrek egintzaren larritasuna eta garrantzia, arau-hauslearen aurrekariak eta sor litekeen arriskua kontuan hartuz, graduatuko dira.

3. Ordenantza honetan aurreikusitako zigoren ordeztan, trafikoaren gaiari buruzko formakuntza eta birziklapen neurriak har daitezke, indarrean dagoen legeriak agindutakoaren arabera.

4. Arau-hausleak egiaztatzen ez duenean bere ohiko bizilekua Espainiako lurraldean duela, Agente salatzaileak, isunaren zenbateko behin-behineko izaeraz ezarriko du eta diru kopuru hori jartzen ez bada edo bere ordainketa bermaten ez bada zuzenbidean onartutako edozein modutan, ibilgailua ibilgetu egingo du. Dena dela, %50ko beherapena egiteari dagokionez, 62. artikuluan aurreikusitakoa kontuan edukiko da.

## III. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA

### *60. artikulua:*

1. Ordenantza honetan eta trafikoko arauetan agindutakoari buruzko arau-hausteen erantzukizuna, arau-haustea datzan egintzaren egilearengan joango da zuzenean.

2. Ibilgailuaren titularrak arau-haustea egin duen gidaria identifikatzeko obligazioa du, hori egitea behar bezala eskatuta, eta dagokion jardunbidea bideratzerakoan obligazio hau betetzen ez bada, bidezko arrazoirik gabe, arau-hauste larriaren egile gisa, diruzko zigorra ezarriko zaio.

3. Erakunde eta zerbitzu publikoetako gidariek, Ordenantza honetan agintzen dena zehatz betetzea zainduko dute beti, egingo dituzten arau-hausteen erantzuleak izanik.

Erakunde edo zerbitzu publiko bateko ibilgailua salatuz gero, bidezko zigor-espeditentea bideratzeko kalterik gabe, ibilgailua den Departamentuko Buruzagiari gertakizun horren berri emango zaio.

## XIII TITULUA

### ZIGORTZEKO PROZEDURA

#### 1. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO JARDUNBIDEA

##### *61. artikulua:*

Ibilgailuen zirkulazioari eta trafikoko gaiari buruzko zigorrak jartzeko prozedura, indarrean dagoen legerian ezarritakoa da. Alkateak, edo hala badagokio, 65. artikuluan zehaztutako eta berak izendatutako pertsonak, prozedurarako eskuliburu bat, eta aldatzea edo indargabetzea bidezkozat jotzen dituen izaera osagarriko agiri normalizatuak onar ditzake eta era horretan, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko zigor-espeditenteen izapideak, aipaturiko eskuliburuan agindutakora egokitu beharko du.

##### *62. artikulua: Isunaren ordainketa.*

1. Arau hauste arinak, salaketaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar lanegunen barruan ordain daitezke %50ko beherapenarekin.

2. Salaketa jakinarazitako hamaikagarren egunetik eta zigorra irmoa izan denetik hamabost lanegun bitartean, isunean izendatutako kopurua ordain daiteke.

3. Aurreko atalean adierazitako ordaintzeko epea amaituz gero isuna ordaindu gabe, premiamenduko jardunbidez egingo da ordainarazpena, isunean izendatutako kopuruaren gaineko %20ko errekaruarekin likidatuz.

##### *63. artikulua: Premiamendu bidezko bilketa.*

Trafikoari buruzko arau-hausteei dagokienez, isunen premiamendu bidezko diru-bilketa, derrigorrezko diru-bilketaren gaian indarrean dauden arauetara egokituko da.

##### *64. artikulua: Isunaren preskripzioa.*

1. Arau-haustea egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hiru hilabetera preskribituko du arau-haustek zigortzeko egintzak. Preskripzioa eten egingo da, administrazioaren jarduera edozein izanik ere, baldin eta salatuak jardueraren berri izaten badu edo salatuaren identifikazioa edo helbidea jakiteko egiten bada edo indarrean dagoen legeriaren arabera egindako jakinarazpenagatik.

2. Zigorrak irmoak izan direnetik urtebetera preskribitzen dira.

3. Aurreko atalean hori adierazita ere, isunak betearazteko bideratutako eta horretara behartutakoari jakinarazitako jarduera administratiboek preskripzioa etengo dute.

## II. KAPITULUA. ESKUMENAK

### *65. artikulua:*

Ordenantza honen helburu diren zigor-prozedurak hasi eta erabakitzeko eskumenak alkateari dagozkio. Hala behar izanez gero, berak horretarako izendatutako pertsonak gauzatu ditzakete.

Bideratzea Udaltzaingoko Unitate Administratiboari dagokio.

### *66. artikulua:*

Alkateak edo, hala badagokio, berak izendatutako pertsonak, trafikoaren gaiari buruzko arau-hauste arruntenen eta ezar litezkeen zigorren lauki bat onar dezake, gerta litezkeen gorabeheren eraginez, horiek izan dezaketen modulazioaren kalterik gabe.

## INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indargabetu egiten dira, Ordenantza honetan ezarritakoaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

## AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza hau, bere behin-betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hurrengo egunean jarriko da indarrean.